



Formazioa helburu

Bularretik Mintzorak formazio lerro desberdinak diseinatu eta martxan jarri ditu. Behar eta egoeraren araberako eskaintzak osatu dituelarik. Beti ere, koherentziaz diseinatu dira aukera horiek; haurraren garapenean parte hartzen duten ildoak kontutan hartuz, testuen literatur ezaugarriak bultzatuz eta beti ere aprendizaiaren bideak presente izanez.

Haur literaturak haurraren garapenean duen eragina aztertzen da formazio saioetan. Eta kasuan kasu, egoera bakoitzean, baliabide egokiak proposatzen saiatzen gara. Helburu desberdinak hartzen ditugu kontutan.

Hitzaldietan, lantegietan eta ikastaroetan garatzen dira ondoren azaltzen ditugun ildo nagusiak.

- Amaren umetokian dagoenean, laugarren hilabetetik aurrera, haurrak entzumena garatzen du. Haurra soinu mundu batean murgilduta bizi da, batez ere bihotzaren taupaden erritmoan. Erritmo bitar horrek aprendizaiaren eragin zuzena eta garrantzitsua du eta bat egiten du tradiziozko haur literaturaren altzoko kantu eta jolasekin.
- Haurraren garapenean berealdiko eragina du helduekin duen harremanak. Ezinbestekoa da giro bero bat sortzea haurraren inguruan, haurra osasun fisikoan eta mentalean hazteko. Sostengu fisiko eta emozional horretan, haur literaturaren erabilpena lagungarri suertatzen da, testuen ezaugarri literarioei esker.
- Garapen intelektual eta hizkuntzaren garapenean ezinbesteko lotura suertatzen da. Haur literaturak eragin zuzena du hizkuntzaren aprendizai osoan: literaturaren ezaugarriak bilakatzen dira oinarri hizkuntza sortzeko erabiltzen ditugun mekanismoa suspertzeko. Haur literaturaren ezaugarriek akuilatzen dituzte hizkuntza sortzeko gaitasunak: silaba errepikapenak, hitz jokoak, errimak, eta hizkuntza ulertzeko eta sortzeko estrategiak.
- Ipuingintzan aurkitzen dugu gainera pertsonaren bilakaeraren isla. Gizakiaren motibazio ezutuak, haren antsiak eta nahiak modu sinboliko batean agertzen dira ipuinetan. Ipuinak hausnarketa bideak suertatzen dira, emozioak azalertzeko bide paregabea; haurraren egituraketa morala eta afektiboa osatzeko lagungarriak dira.
- Haur literaturaren onura guzti hauek dastatzeko haren erabilpena sistematizatu behar da ordea. Kalitatezko testuak partekatu behar dira: ahozko jolasak, kantuak, ahozko kontaketa eta irakurketa partekatu behar dira. Erabilpen hori egitarau egoki baten bidez eraiki behar da. Osasun zentroetan, haurreskoetan eta eskoletan, eta etxeetan egitarau sistematizatuak sortzeko irizpideak lantzen dira egitasmoan.
- Gurasoak eta haurrak literatur espazioak partekatzeko aukera desberdinak eskaintzen dira egitasmoan: hainbat biblioteketan Irakurketa Klubak gauzatzen dira. Horietan, dinamizatzailer baten gidaritzapean jolasak, kantuak eta ipuinak konpartitzen dituzte hurrek eta gurasoek.